



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN

zinegotziak

JONE ZUBELDIA ALTUNA

ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ

IRAITZ OLAETXEA BALERDI

SABINO SAN SEBASTIAN MURUA

AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2020ko martxoaren 9an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidentek, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearen, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2019/445 Dekretua

2019/450 Dekretua

2019/458 Dekretua

2020/01 Dekretua

2020/02 Dekretua

2020/03 Dekretua

2020/08 Dekretua

2020/11 Dekretua

2020/13 Dekretua

2020/16 Dekretua

2020/18 Dekretua

2020/23 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2020/24 Dekretua	2020/27 Dekretua
2020/28 Dekretua	2020/29 Dekretua
2020/30 Dekretua	2020/40 Dekretua
2020/43 Dekretua	2020/46 Dekretua
2020/48 Dekretua	2020/50 Dekretua
2020/52 Dekretua	2020/59 Dekretua
2020/61 Dekretua	2020/63 Dekretua
2020/66 Dekretua	2020/68 Dekretua
2020/69 Dekretua	2020/70 Dekretua
2020/72 Dekretua	2020/74 Dekretua
2020/76 Dekretua	2020/78 Dekretua
2020/80 Dekretua	2020/82 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

3.- 2019ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA


ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen Lizartzako Udaleko 2019ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

1.- Lizartzako Udaleko 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

Diruzaintzako Izakin Likidoak, 2019-12-31n		485.575,32
Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n		14.229,30
Aurrekontuko zordunak	10.653,49	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	3.645,81	
- Aplikatu gabeko kobrantzak	0,00	



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n		- 59.585,63
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	37.106,45	
Sarrerren aurrekontuko hartzekodunak	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	22.479,18	
- Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
Diruzaintzako gerakina guztira		440.288,99
Saldo kobragaitzak	-----	
Gehiegizko finantzaketa lotua:	-----	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina		440.288,99

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	70.464,23
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	- 0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	79.833,31
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	150.297,54

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	103.116,46
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	103.116,46



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- 2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.
- 3.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea ospatuko den hurrengo bileran.

Udalbatza jakinean gelditzen da.

4.- 2019ko AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2019 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedienteen agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikulua horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

5.- 2020/01 KREDITU ALDAKETA

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

ERABAKI DA

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
221.165.00.01	Argiteri Publikoa. Irunzubiko farola berria	25.000,00	1.149,14	26.149,14
221.920.10.01	Irunzubi. Pabiloiko Argiteria	400,00	3.073,06	3.473,06
227.151.00.01	Proiektuak eta Lan Teknikoak	3.000,00	5.938,22	8.938,22
	Arrisku-Osasuna-Bideetan lanak		1.270,50	
	Nafarkoop –		2.167,72	
	Auditoritza Energetikoa –		2.500,00	
601.454.10.01	Baserri Bideen Konponketa	48.000,00	67.171,96	115.171,96
	Frontoi Aurrea		7.724,64	
	Azkondeitan Paso Kanadiense		7.924,01	
	Kale Nagusian Lanak		8.777,34	
	Lezialde		18.085,27	
	Elizondo		16.293,48	
	Ipintza		5.578,56	
	Errekalde		4.831,65	
GUZTIRA		76.400,00	77.332,38	153.732,38

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	-----	77.332,38	77.332,38
GUZTIRA		-----	77.332,38	77.332,38

- 2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

6.- 2020KO ORDAINSARIEN GEHIKUNTZEI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA
2/2020 ERREGE LEGE-DEKRETUA

2020ko urtarrilaren 22an, **2/2020 Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 21ekoa**, argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), **sektore publikoaren esparruko ordainsariei buruzko premiazko neurriak hartzekoa**.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Aipatutako Errege Lege-dekretu horrek sektore publikoko langileen ordainsarien gehikuntzak arautzen ditu 2020. urteari begira, eta, ildo horretatik, soldata igoera finko bat, eta, ekonomiaren hazkundearekin lotuta, ehuneko osagarri bat gehitzea aurreikusten du. Zehazki, sektore publikoaren zerbitzura ari diren langileen gehikuntzak onartzeko ezinbestekoak diren zenbait alderdi arautzen ditu berariaz, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera eraginkorrak izango direnak; modu zehatzagoan, %2ko igoera finkoa eta funts gehigarrietako %0,3ko igoera xedatzen ditu; azken horiek, hain justu, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuetarako banatzen direnei dagozkie, eta, administrazio bakoitzean, erakunde sindikalekiko negoziazioekin daude lotuta.

Zehatz-mehatz, hauxe xedatzen du **2/2020 Errege Lege-dekretuak 3.Bi artikuluan**:

Bi. 2020an, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin izango dira gehitu 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko bi baino gehiago, homogeneousotasunaren arabera bi aldiatarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinasunari begira. Xede horretarako, 2019ko ordainsarietan, BPGd-aren bilakaerari lotutako ehuneko 0,25eko gehikuntza urteko zenbatekotan hartuko da aintzat. Oro har, gizarte-ekintzako gastuek 2020an ezin izango dute izan gehikuntzarik 2019koekiko. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jo da, ez daukatenak zerikusirik egindako lanaren kontraprestazioekin, azken horien xedea zenbait premia asetzea baita, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langile horien gorabehera pertsonalen ondorioz.

Horrez gain, Barne Produktu Gordinaren gehikuntza, 2019ko prezio konstanteetan, ehuneko 2,5era edo gehiagora iritsiko balitz, soldata beste %1 igoko litzateke 2020ko uztailaren 1etik aurrera. Adierazitako ehuneko 2,5 horretatik beheragoko gorakaden kasuan, gehikuntza proportzioan murriztuzko da, aipatutako ehuneko 2,5 horrekiko izan duen murrizketaren arabera; beraz, hauek izan dira gehikuntzak oro har:

BPGd-a 2,1 bada: %2,20

BPGd-a 2,2 bada: %2,40

BPGd-a 2,3 bada: %2,60

BPGd-a 2,4 bada: %2,80

Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, BPGd-a igotzeari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urte bakoitzean argitaratutako BPGd-aren aurrerapenaren estimazioa hartuko da kontuan. INEk BPGd-aren aurrerapena argitaratu ondoren, eta enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko jarraipen-batzordeari jakinarazita, igoera aplikatzea onetsiko da, hala



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

badagokio, Ministro Kontseiluaren erabaki bidez. Erabaki horren berri emango zaie autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udalerrri eta Probintzien Espainiako Federazioari.

Gainera, soldata-masaren ehuneko 0,30eko gehikuntza osagarria baimendu ahal izango da, besteak beste, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuak ezartzeko, funtzio parekagarriak dituzten lanpostuen artean dauden osagarri espezifikoak berrikusteko, destino-osagarriak homologatzeko, edota pentsio-planetako ekarpenetarako.

Aurrekoa kontuan hartuta, 2/2020 Errege Lege-dekretua indarrean sartu ondoren, eta 2018ko eta 2019ko ekitaldietako ordainsarien gehikuntzei dagokienez EUDELEk egin izan duenari jarraiki, Euskadiko udalei honako gomendio hau egitea egoki dela deritzo EUDELEk, izan daitezkeen interpretazioak argitzen laguntzeko:

GOMENDIOA

3. Bi artikuluko lehen paragrafoan adierazten denari dagokionez, legeak baimendutako maximoa gehitzea langileen ordainsaria, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin; hau da, 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenekiko %2, homogeneotasunaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinasunari begira.

3. Bi artikuluko bigarren blokean zehazten denari lotuta, eta kontuan hartuta Barne Produktu Gordinaren gehikuntza batzuen kasuan soldatak beste %1 arte igotzeko aukera biltzen duela, gaur egun ez dakigu beteko den premisa hori, eta, ildo horretatik, Ministroen Kontseiluak zehazten eta onesten duena hartuko da kontuan. Dena dela, eta 3. Bi artikuluan xedatzen denarekin bat etorrira, gehikuntza horrek 2020ko uztailaren 1etik aurrera izango du eragina.

3. Bi artikuluko azken paragrafoak soldata-masaren %0,30eko gehikuntza osagarria egiteko aukera arautzen du, eta, udal-autonomiaren kalterik gabe, honako **gomendio** hau egiten diegu Euskadiko udalei: finantzen eta aurrekontuen esparruan dituzten aukeren neurrian, soldata-masaren %0,30eko gehikuntza osagarria onets dezatela. 3.Bi artikuluko horretan jasotzen diren lege-formulen arabera banatuko da zenbateko hori, edo aplikagarri den beste edozein formularen arabera, udal-autonomiaren eta negoziazio kolektiboaren esparruan, betiere.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

GOMENDIO honen bidez, lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi izan du EUDELeK, eta argi erakutsi nahi izan du, gainera, lege-agindu hori legediaren barnean langile publikoentzat modurik onuragarrienean interpretatzeko duen interesa; guztia, erakundeen eraginkortasunean eta lan-ingurunearen kalitatean aurrera egiteko asmoz, horrek guztiak bihar-etzi negoziazio kolektiboaren esparruan aurrera egiteko bidea erraztuko duen ustez, eta UDALHITZ Akordio Arautzaile berria lortzeko lagungarri izango delakoan, betiere.

EUDELeK argi adierazi nahi izan du berriro zeinen garrantzitsua den “2008-2010 UDALHITZ Akordioa” bere osotasunean betetzea, bermerik handiena lortutako akordioak betetzeak adierazten baitu, zalantzarik gabe; gainera, sektorean akordio berri bat lortzeko legitimazioa ere bada. Zentzu horretan, gaur egungo 2008-2010 UDALHITZ Akordioa betetzerakoan suma zitezkeen gabeziei konponbidea emateko baliabidea litzateke erakunde bakoitzean antolatutako “Jarraipen Mahaia”, azken informazio-orrietan gogorarazi dizuegunaren ildotik. Gogorarazi nahi dizuegu mahai horien xedea, berariaz, egungo 2008-2010 UDALHITZ Akordioan bete gabe utzitako alderdiei konponbidea emateko akordioak egiten laguntzera mugatzen dela, eta ez dutela ireki behar horietatik kanpoko gaiak negoziatzeko prozesurik; azken horien aplikazio-eremua, zehazki, EUDELen eta sindikatuen arteko UDALHITZ Negoziazio Mahai Orokorrean datza.

Guzti hori kontutan hartuta, Udal Langileen Ordainsarien Gehikuntza % 2ko igoera finkoa onartzen da. Baita ere, horrez gain, Barne Produktu Gordinaren gehikuntza, 2019ko prezio konstanteetan, ehuneko 2,5era edo gehiagora iritsiko balitz, soldata beste %1 igoko litzateke 2020ko uztailaren 1etik aurrera. Adierazitako ehuneko 2,5 horretatik beheragoko gorakaden kasuan, gehikuntza proportzioan murriztuzko da, aipatutako ehuneko 2,5 horrekiko izan duen murrizketaren arabera; beraz, hauek izan dira gehikuntzak oro har:

BPGd-a 2,1 bada: %2,20

BPGd-a 2,2 bada: %2,40

BPGd-a 2,3 bada: %2,60

BPGd-a 2,4 bada: %2,80

7.- ARTXIBOKO AGIRIAK DEUSEZTATZEA

Consuelo Urteaga, Artxibo Antolaketa S.L.k burututako lanen arabera, Espurgoaren behin betiko zerrenda azaltzen da, espediente mota, ezabatututako urteak eta dokumentazio bolumena adierazten duena, Covased-ek onartutako balorazio taulen arabera.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Zerrenda hau, Lizartzako udalbatzarrean onartu ondoren Eusko Jaurlaritzara bidaliko da bere onarpenerako. Bi erakundeen onarpena eduki ondoren ezabatuko da dokumentazioa.

017	Laguntza teknikoak edo espezializatuak eskatzeko esp.	1988-2014	Kaxa 1
020	Ezinduentzako aparkatzeko txartela eskatzeko espedientea	1996-2011	½
021	Tele-laguntza zerbitzua eskatzeko espedientea	2009-2013	½
025	Tratu txarren biktimei arreta psikologikoa eta juridikoa eskatzeko espedientea	2009-2012	½
035	Osasun txartela eskatzeko espedientea	1998-2002	½
036	Gizarte larrialdietarako laguntzaren eskabide-espedientea	1992-2014	5
037	Oinarrizko errentaren laguntza eskatzeko espedientea	1992-2011	2
082	Ordaintzeko aginduen espedientea	1991-2004	60
083	Diru-sartze aginduen espedientea	1991-2004	29
095	Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren errolda	1975-1999	9
096	Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren espedientea	1975-2005	2
100	Etxez etxeko laguntza zerbitzuen espedientea	1984-2014	3
114	Bankuko kontu laburpenak	2004-2011	1
125	Errolda fiskalak	2002-2013	3
133	Zabor bilketaren eta beste zerbitzu gaineko zergaren tasen espedientea	1972-2013	14
137	Ebaluazio, diagnostiko eta esku-hartze psikologikoaren zerbitzurako espedientea	1992-2008	¼
140	Familia ugarien tituluen espedientea	1996-2014	½
141	Genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei laguntzeko prestazio ekonomikoen eskabide-espedientea	2003-2008	¼
143	Kotizaziorik gabeko pentsioen espedientea	1992-2005	⅓
144	Gizarte-ongizateko pentsio funtsaren espedientea	1988-1995	⅓
145	Egoitzan behin betiko lekua eskuratzeko espedientea	1992-2012	1,5
146	Egoitza-zentroetan aldi baterako egonaldiatarako espedientea	2004-2008	¼
150	Udal bide publikoa okupatzeko baimenak	2009-2014	1
163	Taulako edikutak	1995-2014	1



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

167	Udal zergen hobari eskaerak	2010-2015	1
183	Diru-sarrerak bermatzeko laguntza	2009-2011	1
184	Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko laguntza	1991-2009	½
188	Familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren eskaera	2008-2013	1
189	PEVS	2012	Esp.1
190	Prestación complementaria vivienda	2009-2010	⅓
192	Desgaitasuna baloratzeko eskaera	1992-2014	2,5
193	Mendekotasuna baloratzeko eta baliabideetara bideratzeko RAI baremoaren eskaera	1996-2014	2

Dokumentazio honen ezabaketa: 136 kaxa

Horretaz aparte, ezabatzeko kopuru handia atera beste dokumentu hauekin:

- Mankomunitateko aktak eta dokumentazio informatzailea,
- Korrespondentzia orokorra,
- Obra proiektuen kopiak. Askotan proiektu bakoitza 3 eta 4 ale zituen

Ezabaketa guztira 400 kaxa ingurua igoko da

Aipatu behar da 50 urte edo gehiagoko antzintasuna duen dokumentazioa ezin dela ezabatu historikotzat hartzen delako.

8.- HITZARMENAK

LIZARTZAKO UDALA ETA TOLOMENDI LANDA GARPEN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Idazkaritzak 2020ko otsailaren 17an egindako txostena ikusi da, Lizartza Udala eta Tolomendi-ren artean, elkarlanean, Tolosaldeko udalerrien informazio eta komunikazio teknologien dinamizazio eta aholkularitza lana bideratzeko lankidetzarako hitzarmen-administratiboa onartzeko aplikatu daitekeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2020ko otsailaren 17an jaso da udalean.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2020ko otsailaren 19ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udalak eta Tolomendi-ren artean, elkarlanean, Tolosaldeko udalerrien informazio eta komunikazio teknologien dinamizazio eta aholkularitza lanabideratzeko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkatea den, IÑAKI AZPIROZ BELDARRAINK, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA - ATARIA

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M.k, 2020 urterako Lankidetzak Hitzarmena aurkeztu du, TKT-k eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio lanak bideratzeko.

Horretarako, TKT, alde batetik bigarren klausulan aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du, eta aipatutak ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, hirugarren klausulan agertzen diren konpromisoak hartuko lituzke.

Udalak bere aldetik, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen larriak garatzeko konpromisoa hartuko luke laugarren klausulan arabera.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Ekimen lerroak, hurrengoak dira:

- a) Diru ekarpen zuzena. Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau lau urtekoa (2019-2021) izango da. Urtean urteko errola eguneratuaren arabera biztanleko 5,00 € emango dizkio, 2020 urtean, Udalak TKTeri. Erabaki hau urtez urte berretsi beharko du Udalak diru-kopuru zehatza adierazten duen berariazko ebazpena bidez, hartzaileak aurkeztutako aurreko urteko zuriaketa dokumentuak (hitzarmenaren 6. puntua) eta dagokion urteko egitasmoa aztertu eta gero.
- b) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, publizitatea egitea behartuak dauden iragarki ofizial eta eskelak Tolosaldeko Atarian jartzeko konpromisoa hartzen du Udalak tarifatik %50eko deskontuarekin. Gainerako publizitatea, urteko fakturazioaren arabera negoziatuko dute bi alderdiek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatu litzateke.
- c) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta TKT-ren artean osatuko den lan-taldeak, adostutako proiektua sustatzeko diru ekarpen bereziak egin ahal izango ditu udalak.
- d) Sozializazio eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzak erakartzeko Udal zerbitzuen kooperazioa izango du TKT-k
- e) Informazioaren kudeaketa. Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jariora sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta TKT.k

Ekarpenari buruz, segiarren klausulak honela dio:

“Seigarrena.- Aipatutako diru ekarpen zuzena (4.^a puntua) honela egingo da: hitzarmenean adostutako diru-ekarpena osoa dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabeteko epean jasoko du TKT-k. Urte amaieran, jardunaren oroitidatzia eta Udalaren diruekarpena osoa zurtzeko fakturak edota beraien fotokopia konpulsatuak eta zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.”

Diru ekarpenari buruz

Hitzarmenaren xedea, eta alde biek hartutako konpromisoak aztertuz, argi dago, Lizartzako udalak, diru laguntza bat ematen dioa TKT-ri.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Zentzu horretan, Hitzarmen proposameneko VI aurrekarian aipatzen diren, Eusko Jaurlaritzak ohezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak “2016-2018 epealdian euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko” diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia), onartzen duen 2016ko uztailaren 20ko agindua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak programen kontura euskararen erabilera sozialaren esparruan diru laguntzak oinarri arautzaileak, diru laguntzak dira.

Hitzarmenak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, 7.5 artikulua xedatutakoa gainditzen du.

Artikulu horrek honeladio:

“Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko edo pribatuekin”.

Urriak 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 legearen 48. artikulua, hitzarmenen balio eta eraginkotasun baldintzei buruzkoa bere 7. atalean honela dio:

“Cuando el convenio instrumente una subvención deberá cumplir con lo previsto en la Ley 38/2003, de 27 de noviembre, General de Subvenciones y en la normativa autonómica de desarrollo que, en su caso, resulte aplicable.”

Kasu honetan, Diru-laguntzen legea izan litzateke aplikagarri, hitzarmenak diru-laguntza bat osatzen bai du.

Tolosaldeko Komunikazio Taldeak S.M. proposatutako lankidetzak hitzarmenak, diru-laguntza bat gordetzen du. Beraz hitzarmena sinatu aurretik, Diru-laguntzen legeak dioena bete beharko da. Hau da, diru laguntza zuzena emateko baldintzak betetzen diren ikusi eta ala bada zentzu horretan izapidetu.

Guzti hori kontutan izanik, eta Diru-laguntzen legeak dioena betetzen denez, 2020 urterako, 3.160,00 €-tako diru-laguntza zuzena ematea erabaki da.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

LIZARTZAKO UDALA ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Idazkaritzak 2020ko otsailaren 17an egindako txostena ikusi da, Lizartzako Udala eta Tolosako Udalaren artean, elkarlanean, Peñascal Kooperatibarekin, Laguntza Teknikoak Uzteko Programa Kudeatzeko hitzarmen-administratiboa onartzeko aplikatu daitekeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2020ko otsailaren 17an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2020ko otsailaren 19an idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udala eta Tolosaldeko Udalaren artean, elkarlanean, Peñascal Kooperatibarekin, Laguntza Teknikoak Uzteko Programa Kudeatzeko administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

9.- IDAZKARITZA-KONTU HARTZAILETZA LANPOSTUA ELKARREKIN SOSTENGATZEKO UDALEN AGRUPAZIOKO BALDINTZAK ALDATZEA

Aurrekari hauek ikusita:

2020ko urtarrilaren 23ko Alkatezaren Ebazpena.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

2020ko urtarrilaren 24ko Idazkaritzaren Txostena.

Lizartzako Udalak, bertaratutako kideen gehiengoaren aldeko botoarekin, erabakia hartu zuela:

ERABAKIA

Lehena. Idazkaritza-Kontuhartzailtza lanpostuari eusteko elkarteak aldatzeko espedientea irekitzea; hauek osatzen dute elkarteak:

OREXAKO UDALA
LIZARTZAKO UDALA

Agrupazioaren baldintzak aldatzea beharrezkoa ikusten da arrazoi hauengatik:

Gaur egun, Lizartzako Udalak, %70 sostengatzen du lanpostua eta Orexako Udalak %30.

Kontutan hartuta banaketa horrek, laneko ordutegian hainbat arazo sortzen dituela, Udak bakoitzak sostengatzen dituen %-koak aldatu eta era honetan ezartzea aurreikusten da:

OREXAKO UDALA - % 40 (Astearte eta Ostegunetan)
LIZARTZAKO UDALA - % 60 (Astelehena, Asteazkena eta Ostirala)

Bigarren. Egindako baldintza aldaketari buruzko txostena eskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Hirugarren. Txostena jaso ondoren, espedientea Euskal Autonomia Erkidegoari igortzea, onets eta dagokion lanpostuaren baldintza aldaketak sailka ditzan.

10.- MARTXOAREN 8ko ADIERAZPENA

Urtetan mobilizazio ugariak egin eta bi greba feminista izan ondoren, kaleetako aldarria argia da, erabatekoa: gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, beharrezkoa da printzipio eta aldarrikapen feministak egitura eta politika instituzionaletan txertatzea. Beharrezkoa da eraldaketa erradikalak gauzatzea, erreproduktzio sozial jasangarria politika horien erdigunean jartzeko kapital-metaketa alde batera utzita, azken horrek gehiengo sozialen bizi-baldintzak prekarizatzen dituelako eta natura merkantilizatu eta esplotatzen duelako, etorkizuneko belaunaldien



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

biziraupena arriskuan jartzeraino. Beharrezkoa da, behingoz, emakume guztien indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea lehentasun politiko bat izatea. Beharrezkoa da instituzioek interpelazio hori gure gain hartzea, eta, gure ordezkartzari erantzunez, herrialde honetako herritar guztiak —guzti-guztiak, salbuespenik gabe— hobeto bizi daitezen gure esku dagoen guztia egin dezagun. Ez digute eskatzen argazki gehiago egitea eta asmo-adierazpen soilak adostea, ezta desperekotasunen sustraiei heltzen ez dieten makillaje-politikak planteatzea ere: aitzitik, eskatzen digute guztionak diren baliabideak erabil ditzagun emakumeen eta gizonen artean dauden sakoneko desperekotasunei aurre egiteko, inor atzean utzi gabe, lan-errealitatearen, arrazaren, sexu-desiraren orientazioaren, administrazio-egoeraren, adinaren eta beste edozein arazoiren arabera sistemak ezartzen dituen diskriminazio eta zapalkuntza ugariei erantzunez.

Premiazko egoera horren aurrean, erabateko konpromiso bat hartu behar dugu gure udalerrietako pertsonekin, berdintasunaren eta justiziaren alde. Eta konpromiso hori har dezakegu, bakar-bakarrik, zeharo demokratikoak diren prozesuak planteatzen baditugu, non instituzioetatik “obeditzen gobernatuko dugun”, emakume zapatisten hitzak erabiliz. Eta bakar-bakarrik lortuko ditugu gure bizitzekin zerikusia duten erabaki guztiak bizi garen tokian hartzen baditugu, gure lurraldeetan, gure herrialdean; hau da, subirano izan bagaitezke eta gure erabakitzeko eskubidea baliatzeko moduan bagaude.

Euskal herritar guztien erabakiak errespetatuko dituen esparru politiko eta instituzional bat eskatzeko eta eraikitzeko lanean jarraitzen dugun bitartean, subiranotasun feminista noranzko ugari bide baten antzera agertzen da, emakume guztien askatasunak berreskuratzeko eta eskubideak zabaltzeko prozesu baten antzera, non egunero-egunero definituko eta gauzatuko dugun gure burua gobernatzeko zer egin nahi dugun eta gure herrialdearentzat zer bizi-baldintza nahi ditugun, guztiontzat, salbuespenik gabe, eta belaunaldi gazteenen etorkizuna hipotekatu gabe. Beharrezkoa da maila instituzional guztietatik lan egitea, koordinatuta eta ikuspegi subiranista zabal batekin, eta lehentasunak identifikatuz politika feministetan aurrerapauso sendoak egiteko, eremu guztietan eskubide eta askatasunak zabaltzearren.

Instituzioetan ere feminismoa egunero defendatzen eta eraikitzen delako, gaurko egunak balio behar du, halaber, Udal honek politika feministen alde hartu duen konpromisoa berresteko, emakumeen erabakitzeko eskubidea abiapuntua, euren bizitzak zeharka hobetzera zuzentzen diren arlo guztietako politika feministekin, azpimarra berezia jarriz egoera zaugarriago batean dauden emakume-kolektiboengan.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Horregatik guztiagatik, Lizartzako Udalak honako hau erabaki du:

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren bidean aurreratzeko neurri sorta bat garatzea udalerrian, beharrezkoak izango diren baliabide guztiak bermatuz:

- * Udal aurrekontuen azterketa egitea, genero ikuspegitik, Udalak hartu dituen konpromisoen bideragarritasuna bermatuz.
- * Udal kontratazio publikoan klausula sozial eta genero klausulak txertatzeko plan progresibo bat diseinatzea eta abiatzea.
- * Udalerriko emakumeek egindako ekarpena balorean jartzeko memoria historikoa lantzea.
- * Genero ikuspegi batetik udalerriko zaintzen errealitatearen azterketa egitea eta errealitate hori hobetzeko neurriak martxan jartzea, besteak beste, ondokoak jasoz:
 - * Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua ematen den balditzak eta lan baldintzak duintzeko zuzenduriko neurriak proposatzea eta abiatzea.
 - * Familian egiten diren zaintzen analisia (ume eta mendekotasuna duten pertsonena), gabeziak, bete gabeko beharrak eta hobetu beharrekoak identifikatuz eta aurre egiteko neurriak abiatuz, kasu:
 - * Zaintzen beharrei erantzuteko udal espazioak egokitzea.
 - * Zaintzarako pertsonen kontratazioaren gainean laguntza ematea.
 - * Zaintza behar edo eskaintzen dituzten pertsonen arteko harremanak erraztea.
 - * Nagusiki emakumeek egindako zaintza lanei balorea emateko sentsibilizazio jarduerak bultzatzea, baita gizonen erantzunkidetasunaren gainean kontzientzia hartzeko jarduerak ere.
 - * Zaintza rolen gaineko emakumeentzako ahalduntze jarduerak abiatzea.
 - * Gazteei zuzendutako rol berdinezaleen gaineko hezkuntza jarduerak bultzatzea, ahalduntze ikuspegi batetik.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Identifikatu diren Udalerriko emakume zein kolektibo feministek parte hartzeko bideak irekiko dira, identifikatu diren jarduera guztien diseinutik ebaluazioraino parte hartu ahal izateko, euren iritzia kontuan hartuz.

Martxoaren 8ko adierazpena, aho batez onartu da.


11.- MOZIOAK

GIPUZKOAKO SENIDEAK

Gipuzkoako Sendieak elkarteak, mozio hau aurkeztu dute:

- 1.- Gure adinekoen arreta lehentasunezko gaia da, eta, aldi berean, presako kontu bat, irizpide politiko sindikalen gorabeheren mende egon ezin dena.
- 2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari dei egitea behar diren neurriak har ditzan laneko gatazka hori konpontzeko, gatazka horrek erabateko eragin pasiboa/aktiboa baitu. Era berean, Foru Aldundiari eskatzea kobratutako kuoten eta eman gabeko zerbitzuen ehuneko zatiak itzultzeko konpromisoa bete dezala, eta hori ukatzen ari zaien eskubide gisa espero dute egoiliarrek eta mendekotasuna duten pertsonak. Era berean, Foru Aldundiari eskatzea arreta-ratioak berriz azter ditzala, ez errentagarritasun ekonomikoaren irizpideen arabera, baizik eta mendekotasuna duten eta ahulak diren pertsonen zerbitzua emateko, zerbitzu instrumentalizatu bat baino zerbait gehiago behar baitute.
- 3.- Gaur egungo lan-gatazka konpontzeko, Foru Aldundiari eskatzen diogu mahai bat deitzeko, non inplikaturako alderdiak eseriko baitira gatazka hori amaitzeko helburu bakarrarekin.
- 4.- Bere Udaletik Gipuzkoako Egoitza eta Eguneko Zentroen Hitzarmen Kolaktiboan gatazkan dauden sektoreko patronalei dei egitea, aurrerapauso bat eman eta arazo hori konpontzeko benetako ahalegina egin dezaten, beste pertsona batzuek gaintu ezin izan duten bizitza-luzera baitu.
- 5.- Udaletxe honek konpromisoa hartzen du zentro publiko eta itunduetan dauden egoiliarrei eta mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko gutxieneko kanonak nabarmen urratzen dituzten enpresen aurka jotzeko.

Era berean, hartutako erabakiaren berri, Gipuzkoako Foru Aldundiako Gizarte Politikako Foru Diputatuari helaraztea, onartzen da.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

12.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzietan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia